

Gabon dizuela guztioi.

Eguberri eta urteberri egun hauek etxekoekin elkartu eta asmo berriak azaltzeko uneak izaten dira.

Euskal gizarteari esan nahi dizkiodan hitz hauek izpiritu horrekin esandakoak izatea nahi nuke.

Elkarrengana biltzeko sasoia bizi dugu.

Aldi berri bat hasi du gure Herriak; aukera berriz betetakoa:

Bakea eta Bizikidetzaren lantzeko garaia.

Aukera horiek hezur-mamitzea dagokigu guztioi.

Gorrotoa eta arrangura atzean uzteko ilusioa daukagu.

Eskuzabaltasunez jokatu beharko dugu. Eskuzabal izan beharko dugu pertsona bezala eta konpromisoak hartu beharko ditugu talde bezala.

Iraganak eta etorkizunak hori eskatzen digute.

Elkarrekin lan egiten badugu, leialtasunez eta isilean, lortuko dugu iragana alde batera uztea. Lortu egingo dugu gizatasunari dagozkion oinarriak eta balioak berrindartzea. Eta lortuko dugu indarkeria eta gorrotoa gure artetik baztertzea.

Hori da gure belaunaldiaren erronka nagusia.

Elkartasunerako unea bizi dugu.

Pertsona eta familia asko egoera zailetan bizi dira.

Denok ezagutzen ditugu etorkizuna ilun ikusten duten dendariak, enpresa txikiak edo profesional autonomoak. Pertsona asko daude lanik gabe, eta langile asko enplegua galtzeko beldurrez bizi dira.

Pertsona hauek dira gure lehentasuna.

Euskadin horrela izan da beti. Horixe da gure izateko modua: beste edozeren aurretik pertsonak daude.

Aurreko urteetan egoera ekonomiko errazagoan bizi izan gara.

Orain, ordea, disziplinaz eta arduraz jokatzeko dagokigu.

Eusko Jaurlaritzan neurri zehatzak hartuko ditugu. Gerrikoa estututuko dugu. Familietan egiten ari garena egingo dugu Gobernuan.

Ahalegin hoentan denok bat gara. Ekonomi eta gizarte arduradunak. Langileak.

Erakundeetako arduradun guztiak. Euskal gizarte osoa, alegia.

Hastera doan urte berriak lehentasun argi bat dauka: pertsonak.

Pertsonen osasuna zaintzea; beharrezan daudenei, babesa eskaintzea; gazteei, formakuntza ematea; eta lanik ez dutenei, laguntasuna.

Eta persona horiei hitz egin nahi diet gaur, batez ere, euskal gizarte osoaren elkartasuna ziurtatu dezagun.

Asmo berriak azaltzeko unea ere bada.

Gure asmo nagusia akordioak lantzea da.

Akordioak eta elkarlana erabilita erronka zailak gainditu ditu Herri honek lehen ere.

Aurrera ateratzeko gai izan gara.

Herri txikia gara, baina Herri saiatua.
Asmo handiak dituen Herria.

Eta Herri bezala hazi nahi dugu,
Gure autogobernua sendotu, erabakitzeko ahalmen handiagoa edukitzeko.
Presentzia gehiago nahi dugu munduan, eta Euskadiren tokia Europan indartu.
Akordioa eskaintzen dugu, eta errespetua eskatzen dugu.
Ez dugu inoren inposiziorik onartuko gure politikak garatzeko momentuan.

Azken 30 urteotan Euskadik aurrera egin du.
Aurrerapausu handia eman dugu gizakion garapena ziurtatzeko.
Erakutsi dugu autogobernua tresna indartsua dela horretarako.
Autogobernua izan da daukagun ongizatea lortzeko izan dugun tresna nagusia.

Datozen bi urteetan arazoak izango ditugu: ahaleginak, ajustek eta langabezia.
Zailtasunez betetako urte bi. Baina gaintu egingo ditugu.
Euskadi aurrera aterako da politikan eta gizartean akordioetara iritsita.

Orain aurrera begiratu behar dugu. Ilusioz; eta baita itxaropenez ere.
Krisian gaude eta aurrera atera behar dugu. Erantzunak behar ditugu.
Lehendakari naizen aldetik hitz ematen dut erantzunak bilatuko ditugula.
Gure Jaurlaritzak bide bat dauka aurrera ateratzeko:
- Norabide argi bat aukeratu dugu
- Bidelagunak bilatuko ditugu, eta
- Elkarrekin egingo dugu aurrera

Hori da gure asmoa eta gure erantzukizuna: akordioak lantzea eta aurrera egitea.
Aurrera egiteko beharrezkoa da gaizki daudenei elkartasuna adieraztea.
Beharrezkoa da oinarritzko zerbitzu publikoak ziurtatzea.
Aurrera egiteko lehentasun bezala ipini behar dugu enplegua sortzea.
Bakea eta bizikidetzeta indartu behar ditugu.
Aurrera egiteko hazten jarraitu behar dugu Nazio bezala.

Aurrera egiteko beharrezkoa da akordioak lortzea.
Aurkitzen dudak jendeak eskatzen dit saiatu gaitezela denen arteko akordioak lantzen.
Zailtasunen aurrean gauzak elkarrekin egin ditzagula eskatzen digute.
Horixe da gure Herriak gaur barru barrutik eskatzen diguna.
Hauxe izango da nire asmoa eta ahalegina. Ahalegin hori bera eskatzen diet neure
Gobernuari, eta gure Herriko erakunde guztiei. Baita gure gizartean eta ekonomian
dauden arduradun guztiei ere.
Hauxe izango da gure erantzukizuna: akordioak lortzea.

Urte berria hastera doa.
Aldi berri baten atarian gaude.
Egin dezagun lan elkarrekin hobea izan dadin denontzat.
2013garren urte honetarako hoberena opa dizuet guztioi:
Zorionak eta Urte berri on!